

Arantzazu adibide bat bezela jarri dut, ez egiten ari geralako. Jakin nai genukena auxe da: ia jendea prest ote legoken. Teologoak eta filosofoak bear ditugu batez ere. Gauza au zuzen eramateko onela ordenatu bear: nai duten guziak (etxe bakoitzean pentsa lendabizi zer egin) ona idatzi zer autatzen duten eta berealaxe erantzungo zaie, beste inork gai ori artu duen edo ez. Lanaren kopia bat onera bialti gordetzeko. Onenak badikeke YAKIN'en argitaratzea. Lan auekin gaur-gaur ez dugu texto bat osatuko, baiña biar lan ori egin bear duanak bideak irikita izango ditu. Lan eder bat litzake. Orra ene idea, ene sujerentzia. Zuek erantzuna.

E'tar Kepa, ofm.

* * *

DONOSTITIK.—Pozik jaso ditugu Donostiko apaizgaien berri batzuek. Jo ta ke diardute euskera lanean. Iñaki esan digu: "aurten, jantokian egiten ditugun itzaldiak, euskeraz egiten asi gela. Laugarren urteko teologoak 20'tik 13'k euskeraz egin dituzte. Aurrenengoak beta gutxi zutela-ta eckax-edo, baiña gero poliki, ederki... Irugarrenengoak 15'tik 12'k egin dituzte euskeraz. Auek oso gai zaillak zituzten: De Verbo Incarnato, De communicatione idiomatum in Xto.. Baiña ala ta guziz ere ondo egin dituzte, ta batzu-batzu "oso ondo", arri-tuta gelditu baigiñan. Gaizki al zegok?" Inola ere ez. Eta asko pozutuzen gaitu seminariotik atera aurretik laugarrenengoak akademi edo zirkuloen bat antolatu

nai duzutela jakiteak. Gerokoen oiñarri ederra! Bejondaizuela. Eta beste berri ederrik ere ba-da, gaurko geiegi. Aurrera.

* * *

DERIOTIK.—Gure Bizkai'ko seminariotik ezetorrela barririk? Ilda egoala euskera lurralde aretan? Ez orixe! Gabonetan 22 YAKIN'en irakurle barri etorri yakuzan. Eta ba-dakigu beste lan eder asko be egiten ari dirala, baiña urrengo batean eurak emongo deuskuez barri oneek. Gaur gure aldetik zorionak eta milla esker!

* * *

"LAIAKETAN".—Artu dugu bigarren alea. Ez digute etxean zer egiten duten berririk ematen, baiña aski ditugu erre-bistatxo onen 60 orriak arakatzea eta bere amar lumak aztertzea, Urretxuko gure pasiotar anai gazteen artean gar-gar agiri dan euskera-miña somatzeko. Ederki eta aurrera!

* * *

"ARNAS".—Ona "Laiaketan" en anai berri bat. Billaro'ko sakramentinoena bigarren au. Biak ditugu etxe barruan egiñak, etxe barrurako egiñak, barruko berri emailleak; baiña plazara ateratzeko batere bildurrik ez dutenak. Argi erakusten digute beren lana eta egin-naia. Aurrera zuek ere!

GUZIOI.—Otsaillaren 30 aurretik bialti orritxo ontarako prest daukazuten iritzi, sujerentzi, kritika... Denok bat bear dugu guziona dugun lanontan. Izan bedi gure lema: **karreradunok euskaldun!** Agur!

